

BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1995, martxoak 17

Zuhaitz eguna
Zapatuan
San Martzialen

Miserableen agurra

OPEL VECTRA BERRIA



merit

GUTXIK EMATEN DUTE
HAINBESTE HAIN GUTXIREN
TRUKE.

OPEL BANATZAILE OFICIALAK,
ESPERIENTZIAZ ONENAK.

OPEL

10^o
URTEURRENA

TALLERES
OLA

Olabarrena Auza, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)



AROZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefonoa eta Faxa: 76 54 91

**ZABALDU BERRIA!!
ZATOZ GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA**

Altzarien dekorazio eta erakusketa

- *Betiko leihoak gaur egungo teknolojiari egokituta*
- *Ez hotzik, ez zaratarik, ez urik!!*
- *Leiho termoakustikoak*

- ATEAK
- ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK

Azaleratu zure aurpegiaren edertasuna **LILURA Edertze Institutuan**



Ikas itzazu makilaiaren trukoak
ERWUIN RAMAL bisajistak
proposatzen dizkizun
ikastaro pertsonalizatuetan
LILURA Edertze Institutuan.

Hurrengo saioa:
1995eko **apirilaren 8an.**

Argibideak: LILURAn

Ikastaroaren prezioa: **5.000 pztz.**

Izena emateko azken eguna:
1995eko **martxoaren 30a.**

PLAZA MUGATUAK!!

Bidekurutzeta, 7 BERGARA ☎ 76 31 71

ERROTALDE JAUREGIA
10570 Bergara
Tlnoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarteak.
Masterreka, 13 Bergara.
Tlnoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate
Erredakzioa:
Eduardo Mendibil

Mikel Elkoroberezibar
Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola

Manjiri Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elorza

Miguel Angel Elkoroberezibar

Estepan Plazaola

Alex Labaien

Itzi Eranza

Komikiak:

Bittor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Jose Martin Ezenarro

Julian Ezenarro

Alex Ugalde

Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

3.800 ale.

Inprimategia:

Beritu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

IDOIA ILARDUIA

Bergarako AEK Euskaltegiko irakaslea

- Noiz helduko da Korrika Bergarara?

- Datorren ostegunean, martxoaren 3an. Kilometro bakoitzak 25.000 pezeta balio du eta egunean bertan hainbat ekitaldi iragarri dira. Arratsaldean Korrika txikia egingo da herriko ikaste-txeekin, euskara eta Korrikaren inguruko mezu txapelketa ere izango da eta umeentzako jolasak *Aske* atsedean taldearekin. Korrika arratsaldeko 7etan helduko da. Euskal Herri osotik 2.100 kilometro inguru beteko ditu gaurtik hilaren 26ra arte.

Bergaran 6 kilometro inguruko ibilbidea egingo da eta dagoeneko zenbait taldek parte hartuko dutela baieztatu digute.

- Korrika Kulturala

"Korrika datorren ostegunean helduko da Bergarara eta hainbat ekitaldi izango dira"



izango dugu herrian?

- Ez, ez dago iragarrita. Dena den Korrikako Herri Batzordeak hainbat ekitaldi antolatuko ditu: umeendako jolasak izango dira Kikaundirekin bihar eguerdian (martxoak 18) eta arratsaldean, berriz, trikitilarietkin kalejira egingo da. Baliteke ekitaldi gehiago antolatzea.

I T U R R I O N E T I K

Arau subsidiarioen Plenoa egingo da hil honen amaieran

Udal iturriek aurreratu dutenez, hil honen amaieran arau subsidiarioen gaineko Plenoa egingo da. Plenoan aurkeztutako alegazio guztiak aztertuko dira eta ondoren, hilabeteko epean, erakusgai egongo da dokumentazio guztia Diputaziora eta Eusko Jaurlaritzara bidali eta behin betirako onarpena eman aurretik. Arau subsidiarioek zerresan asko eman dute herritarren artean eta Udalak ez du aurreraratzerik nahi izan alegazioei zein irtenbide ermango zaien Plenoan erabaki ofiziala eman aurretik. Dena den, baliteke Frontoiko etxebizitzak azkenean ordenazio barruan gelditzea.

E S A N
D U T E

"Gorlak bere tradizioari eusten jarraitzen dio. Bergarako Txirringuluri Elkarteak, antolakuntza ezinhobearekin, afizionatuetan arrakasta duen proba bat bizirik mantentzen du. Lasterketaren historia iraganaren enziklopedia bat da eta zenbait txirringuluriren orainaren eta etorkizunaren zati bat"

BENITO URRABURU
Kazetaria
EL DIARIO VASCO

"Bada jende leialik, norabait arazoetan ikusten duenean bere alde egin eta babesa eskaintzen dionik(...) Inbidiak, gorrotoak, besteren ona ezin eramanak eta norgehiagokak agintzen dute gizarte honetan. Hala ere tarteka ikusten dira honelako gertakizun eta jarrera prestuak. Hauek dira norbera bizitzarekin adiskidetzen dutenak, eta ingurunea bizigarria egiten dutenak"

RUFINA OLASAGASTI
Kultur Jestorea
ARRASATE PRESS


**MAITÉ**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**LA TABLA DE FLANDES**
Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ Angula eta puroen trafikoa aitzakitzat hartuz, **Eneko Olasagasti** eta **Karlos Zabalak** (*Bi eta bat* telesaila) Kuban errodaturako komedia. Bertan turismoaren hainbat topikoei errepassoa ematen zaie eta, aldi berean, **Juan Luis (Jose Ramon Soroz)** eta **Daisyren (Ileana Wilson)** arteko amodio istorioa aurkezten zaigu. *Maité* *Daisyren* alabak beharrezko bultzada emango dio bien arteko erlazio horri...

▼▼ **Arturo Pérez-Reverteren** nobelan oinarrituta, **Jim McBride** zuzendariak (*Querido detective*) eginiko filma. **Kate Beckinsale, John Wood** eta **Sinead Cusack** errepartoan direla, Erdi Aroko margo baten inguruko enigma planteatzen zaigu. Xakeak ere zeresana izango du istorioan zehar...

▼▼ Udal Musika Bandaren kontzertua izango da igandean eguerdiko 12.30etan Novedadesen. Alfredo Glez. Chirlaquek zuzenduta, Bandak ondoko programa eskeiniko du: *Puenteaereas* (Pasodoble, Soutullo), *Convergents* (Obertura, Cesarini), *Aquarium* (De Meij), *El duo de la africana* (Selección, Caballero) eta *El Rey León* (Banda Sonora, Elton John).

Deiak

▼ **Erakusketa.** Ricardo Azkargortaren margoak igandera arte Kultur Etxean.

▼ **Emakumearen** inguruko argazkiak Pol-Polen. Igandera arte.

▼ **Ski irteera.** Martxoaren 25 eta 26an Baqueira-ra joateko irteera. 13.900 pta.. Argibideak Pol-Polen.

▼ **Mendi irteera** Olano-Aratzera hilaren 26an (egun guztirako). 14 urtetik gorakoentzat. Izen-ematea Pol-Polen.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean 7etatik 9etara Seminarioko bajuetan.


▼ **Erakusketa.** "Udaletxea historian zehar" Udaletxeko Pleno aretoan martxoaren 31ra arte.

Ogia

▼ **Igandea 19:** Mizpildi.

GOARDIAKO

- ▼ **Ostirala 17:** Guallar/Ruiz.
- ▼ **Larunbata 18:** Estella/Morales.
- ▼ **Igandea 19:** Estella/Azkoaga.
- ▼ **Astelehena 20:** Mozos/Español.
- ▼ **Asteartea 21:** Camacho/Corcu..
- ▼ **Asteazkena 22:** Puy/Irizar.
- ▼ **Osteguna 23:** Guallar/Amezua.



GAZTELU BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

KOXKA



- Gozokiak
- Fruitu lehorrak
- Jaunartze eta jaietarako enkarguak

Fraiskozuri, 3 ☎ 76 23 89

Agur Miserableei

Miserableen agurra-
ren ordua heldu da. Gaur
gauean, 10.30etan, Musika
Eskolaren X. urteurrena ospa-
tzeko egin zen lan honen
azken emanaldia izango da
Arrasateko Amaia antzokian.

Valen Moñux proiektu-
aren bultzatzaileetarikoa
bateratuz, "Bergaran estreina-
tu zenetik 10 emanaldi eman ditugu
Euskal Herriko hainbat toki-
tan eta guztietan publikoaren
erantzuna ezinboea izan da.
Emanaldirik gogokoena zein izan den?
Ez dakit, bori bakoitzaren
kontua izango da baina ni
behintzat estreinaldiko-
arekin eta Victoria Eugeniako-
arekin geratzen naiz".

200 lagun inguruk parte
hartu zuten Miserableen ja-
iotzan. "Musikoak 60 bat
dira, kantari eta aktoreak
57 eta teknikoak, makila-
iariak, modistak edota
muntaiak egiten lagundu
dutenen artean 200era iri-
tsiko gara bai" aipatu digu
Valenek.

Urtebete eta piku gerta-
zen eta beste urtebete
emanaldiak eskeintzen
eman dituzte miserableek.
"Bai, lan nekagarria izan
da benetan eta nik uste
guztiok daukagula lan bo-
ni azken agurra emateko
gogoia. Uste dut atseden

*Gaur, ostirala, Arrasateko Amaia Antzokian
Miserableak ikuskizuna ikusteko azken aukera*



1994ko urtarrilean estreinatu eta Euskal Herriko hainbat eskenatokitan eskaini den ikuskizunari agur.

bat hartzea ondo etorriko
zaigula guztioi" gogora-
tzen du Valenek.

Gaurko emankizuna
play-backean izango da.
Orain hilabete pare bat
musika grabatu zuten ETB-

ko Miramongo estudioetan
eta gaur antzerki zatia
grabatuko da. ETBk 7 ka-
mara eta unitate mugikor
bat erabiliko du grabake-
tarako eta Fran Balenziaga
izango da errealizadorea.

Valen Moñuxen hitzetan,
"musikaren grabaketare-
kin oso gustora gelditu ga-
ra. Orain beste zatia falta
da: gaurko emanaldi osoa
jarraian egitea izango li-
tzateke aproposena baina
ETBrako denez ziurrenik
korterren batzuk izango di-
ra". Oraindik ez da zehaz-
tu antzezlanaren telebistaz
noiz emango den. Orduan
miserableak etxe guztieta-
ra helduko zaizkigu...


**Gaurko emankizuna
play-backean izango da
eta ETBk grabatuko du**

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE



ZABALETA ERROTULOAK

**Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...**

Amillaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34

Zorionak oraingoan

Normala izaten ez bada ere, oraingoan zerbaitegatik kejak azaltzeko izan beharrean nere zorionak emateko idaztera ausartu naiz. Hain zuzen ere, Barrenkale 44ko etxeko fatxadan egin diren berrikuntza lanengatik zorionak emateko. Oso dotore geratu da, ikusgarria benetan. Gizurra dirudi, nola aldatu daitekeen etxe baten itxura, bere fatxadako harria garbitu edota pintatu ondoren.

Bestalde, azpimarratu nahi nuke Iruñako Orfeoiaren sortzailea eta lehen zuzendaria izan zen Remigio Mujika bergararraren omenez orain dela urte pare bat edo, Barrenkaleko etxe horretako fatxadan jarri zen plaka aldatu egin dela. Iruñako Orfeoiko kideek Bergarako Udalarri oparitutako plakako testua erdara hutsez idatzita zegoen eta Bergarako Udal agintariak euskaratzeko asmoa zutela adierazi zuten orduan.

Orduetik hona, ordea, ez da ezer egin baina etxearen fatxadaren berrizketa lanak direla eta, plaka horren ordez, testua euskaraz jartzen duen beste plaka bat jartzeko aprobetxatu da.

Zorionak, bada, Remigio Mujika zena jaio zen etxean bere omenezko plaka euskara hutsez agertzen delako eta lehen zegoenaren ordez, fatxadaren harri bereko beste bat jarri delako.

A. LARRAÑAGA

Defensor del pueblo

Urtebetean jardun dute politiko guztiek eztabaida eta ika-mika batean. Ez zetozen bat Juan San Martinen ordezkoa aukeratzerakoan Eta azkenean, zer eta Defensor del Pueblo bat jarri digute.

Nire amama gaixoari zein erantzun emango ote dio ulertzen ez dion Markiegik? edo, nik neuk gazteleraz hitz egiteko gauza izan arren, ez al dut nire hizkuntzan hitzegiteko eskubiderik? Euskal Autonomi Elkartearen bi hizkuntza dira ofizialak: euskera eta gaztelera. Horrekin dena esanda dago. Arartekoak bakarrik gazteleraz jakiteak argi eta garbi lagatzen du, besterik esaten bada ere, zapalduta dagoen hizkuntza zein den eta euskaldunoi gaztelerarik gabe ez digutela bizitzen lagatzen.

Hemendik aurrera hobe dugu itxurakeriak alde batera laga eta Arartekoari Defensor del Pueblo deitzea, izena euskeraz jartzeak ez duelako ezer esan nahi. Kasu honetan euskal esamolde zaharra ezin da kontuan hartu, izena ez da izana.

M. ELORZA

Tiira biraka



UNAI AZKARATE

◆ **Zuhaitz eguna**

Bihar larunbata Zuhaitz eguna ospatuko da San Martzial inguruan. Goizeko 11etan autobusa aterako da Beheko Estaziotik eta nahi duten guztiek haritz, pago eta gartzainondoak landatu ahal izango dituzte. Ikastetxetako 10-11 urteko haurrek parte hartuko dute eta ondoren ogitartekoak eta edaria banatuko zaie.

◆ **EAJren oharra**

Datorren ostegunean, hilak 23, Ez Ohizko Uri Batzarra egingo da iluntzeko 8etan Batzokian.

JAIOTAKOAK

Iker Horrillo Fdez. de Jauregi

Martxoak 6

Aitor Elizburu Sierra

Martxoak 8

Iokin Gómez Moreno

Martxoak 10

HILDAKOAK

Luciano Sanz García

Martxoak 11, 87 urte

Arzenio Sánchez Alonso

Martxoak 12, 82 urte

Elkarrizketa eta distentsioa aldarrikatzen duen idatzia Plenora

Gaur arratsaldean aztertzekoa zen Plenoan Elkarri, Gesto por la Paz, Amnistiaren Aldeko Komitea eta Senideak taldeek aurkeztutako idatzia. Aipatutakoek iazko urtarrilean hainbat taldek Maroñon sinatutako dokumentoaren berronespena ematen dute. Testuan, besteak beste, zera jasotzen da: *"Elkarrizketa berez balore bat da. Kontrastatzea, entzutea eta entzuna izatea, inork, berez eta berak bakarrik, ez duela egia absolutoa onartzea da; azken batean, lortu nahi dugun pake helburuaren jarraiketak, inork kanpoan utzi gabe, denon partaidetza behar duela onartzea da (...)"*.

Goian aipatutako taldeek idatziaren berronespen publikoa egitea eta hartutako akordioa instituzio autonomiko zein foraletan jakinaraztea eskatzen dute. Prentsurrean azaldu zuten,



Gesto por la Paz, Elkarri, Senideak eta Amnistiaren Aldeko Komiteak sinatutako idatzia gaurko Pelnoan aztertzekoa zen.

"dokumentoak dakarren filosofia, elkarrizketa eta distentsioaren kultura zabaldu nahi dugu, bai Udalaren politikan eta baita herritarren barremanetan ere. Horretarako Udaletxea izan behar da lehen adibidea ematen".

Lau taldeek oso positibotzat jo zuten elkarren artean egindako lehen lan hau eta etorkizunean

elkarlanean jarraitzeko giroa sortu dela azpimarratu zuten.

Kritika bakarra agertu zuten; *"ekimen honekin adostasuna adierazteko sinadurak eskatzerakoan zenbait erakundek uko egin diote sinatzeari, ez idatziarekin ados ez zeudelako baizik eta beren estatutoetan politika gaietan ez sartzea erabaki dutelako"*.

Mujikaneko etxea bota eta etxe berriak egingo dira



Eguzki Lore txaletaren lursailetan etxe berriak egingo ditu Arregik.

Pedro Garciandia eta Begoña Mujika, Eguzki Lore txaletaren eta inguruko lursailaren (1.647 metro karratu) jabeak, eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak hitzarmena sinatu berri dute txaleta bota eta lursail horretako etxe berriak eraikitzeko. Hitzarmenean jasotzen denaren arabera, Garciandia eta Mujikak 40 milioi pza. ordainduko dizkie Bergarako Udalari, 2 soto, behe komertzialak eta bost solairuko etxea eraikitzearen. Etxe berria Fraiskozuri 8, 6 eta 4 atarien (Antxoni, Avenida...) etxe blokearen jarraipen izango da, Irizar ibilbidera arte luzatuko da eta Fraiskozuriko etxe horien altuera eta zabalera berbera izar beharko du. Horrela, bada, gaur egun txaleta, aurrekaldek jardintzen zuten zati eta tenis pista dagoen tokian eraikiko da. Juan XXIII. plazara doan pasabidera ematen duen lursail zatian, osteraz, ezin izango da etxe berririk eraiki.

◆ Ardi eta ahuntzentzako dirulaguntza

Ardi eta ahuntzentzako dirulaguntza jasotzeko epea martxoaren 31ra arte izango da zabalik Diputazioko Eskualdeko Nekazaritza bulegoan. Nortasun agiria ekartzea beharrezkoa izango da. Dirulaguntza honek inspektzioak izango ditu eta uztailearen 10a arte gerta daitezke. Aitortutako kopuruan gertatzen diren baja guztiak aditzera eman behar dira.

◆ Ibilgailuen zerga

Udal Gobernu Batzordeak martxoaren 6an onartu ondoren, 1995eko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren errolda Udaleko Kontuhartzaitzetan erakutsiko da 15 egunetako epean. Epe horretan errolda horren aurka errekurtsioak eta alegazioak jarri ahal izango dira eta bat bera ere aurkeztuko ez balitz, behin-betikoz onartuko da. Kobrantzarako borondatezko epea maiatzaren 31ra artekoa izango da.

◆ Sellu eta diru bildumazaleen bilera

Bergarako Sellu eta Diru Bildumazaleen Elkarteak Ohizko Bilera Orokorra egingo du datorren ostiralean, hilak 24, arratsaldeko 8etan Kultur Etxean lehen deialdian eta orduerdi beranduago bigarren deialdian. Gai zerrenda honako hau izango da: aurreko aktaren irakurketa, diru-kontuen irakurketa, burutu diren ekintzen informazioa eta etorkizunerako proiektuak, Zuzendaritza Batzorde berria, bazkideen proposamenak eta galdera eta erantzunak.



HBren esanetan DEBASaren karpn "ez da egia osoa azaltzen".

HBren kritika berriak Maltzaga-Urbina proiektuari

DEBASaren karpnaren balorazio negatiboa egin du

Herri Batasunak Debasak Maltzaga-Urbina azaltzeko jarritako karpnaren balorazioa egin zuen asteazkenean prentsaurrean. Aitor Aranzabal eta Jesus Mari Garitano HBko ordezkarien hitzetan, *"onartzen dugu karpa erakargarria zela baina gure ustez ez baldin bada gezurrik esaten, egi osoa ere ez da azaltzen"*. Beren kritiken artean zera adierazi zuten: *"Bergarak, berri afektatu moduan, ez du informazio garbirik izan eta alde horretatik herritar asko informazio faltan geratu dira. Bestalde, berrizkunde ekonomikorako plan-gintzarik ez bada egiten behintzat, ez dugu Maltzaga-Urbina autopistaren beharrik ikusten. Proiektuaren presupuestoak ere ez dira inondik inora aipatzen eta hori*

falta grabetzat jotzen dugu".

Karpn ematen ziren hainbat daturekin jokatzeko salatu ondoren, lurralde osoaren babes (eta ez enklabe batzurenak bakarrik) eta Durango-Beasain korredorea eta Maltzaga-Urbina artean aldaketa sakinak soilik egitea aldarrikatu zuten.

Herri Batasunak Gatzagako biztanleen proposamena aurkezteko erakusketa bat egingo du Pol-Polen martxoaren 23tik 26ra bitartean. Era berean, datorren ostegunean 7.30etan Enrike Miranda arkitektoak proiektua azalduko du Pol-Polen bertan. Proiektu hau Maltzaga-Urbina autopistarekin batera aurkeztu nahi zen baina HBren eskakizunak ez zuten Udalaren erantzunik jaso, HBko ordezkariak salatu zuten.

iRUDI

**Erlojudenda
Bitxitegia**

Ibargarai, 2
☎ 76 51 65


IZADI PILI GISASOLA

Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

ITXASMENDI



ERREKADISTA

Barrenkale, 36
BERGARA

☎ 76 50 64 / 76 13 61

EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,
ARETXABAETA, ESKORIATZA eta OÑATIRA.

Buru-kontrolari buruzko txarлак antolatu zituen taldeak beste ziklo bat iragarri du:

■ Hizlaria:

NORA PIQUENAL, Boliviako Janajipacha komunitateko kide eta hezitzaile. Andesetako kultura eta tradizioetatik jasotako esperientziak eta ezagutzak aurkeztuko dizkigu.

■ Hitzaldiaren mamia:


BIZITZAREKIN ("PACHAMANA") DUGUN KONPROMEZUA. Mendien jakinduria gizaki modernoari transmititzea, mendiek irakatsi baitigute zaurtezintasuna, konstantzia eta lasaitasuna.

■ Hitzaldiko gaiak:

- Ingurugiroarekin bizi izateko modu berri bat
- Ekologia eta osasunaren ulermena
- PACHAKUTI (gogo betez bizi izatearen artea) berria ezagutzea

NOIZ: Martxoaren 29an, asteazkena, 19.00etan

NON: Ipintza Institutuan. SARRERA DOAN!!



Ikusmenerako azken-azkena karteran eramaten da

Dirurik gabe erosteko erarik errazena.



Ahantz ezazu dirua. MULTIOPTICASEk bere kreditu-txartel berria aurkezten du.

Zure erosketak egin eta titularrek baino ez dituzten pribilegioak izateko erarik erosoena. Deskontuak, 30, 60 eta 90 egunetara geroraturiko ordainketak, errekar gurik gabe, ... eta zeuri egokituriko finantzaketa izateko aukera. Zatoz informatzera.

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

Ibargaray, 16 - BERGARA • J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE • J. M. Baradiaran Enparantza, s/n - ORDIZIA

Ekologia

Telefono berdea

- Zer da Telefono berdea? Zergatik sortu zen?

- Mendizaleen munduan betidanik egon dira mendien kontserbazioari buruzko kezka. Gipuzkoako Mendizale Federakundean zerbitzu bat jartzeko beharra zegoela ikusi genuen mendizaleen kezka horiek jaso ahal izateko. Bi helburu ziren nagusi: alde batetik kezka horiek jaso eta administrazioari pasatzeko eta, bestetik, zerbitzu hori aprobetxatu administrazioetik mendiaren kontserbazioa gaiak jasotzeko. Telefono berdea (76 02 64) orain dela 4 urte jarri zen martxan eta printzipioz mendizaleei zuzendutako zerbitzua da.

- Zein harrera izan du zerbitzuak 4 urte hauetan?

- Deiak ia astero izaten ditugu eta batzuetan beste hilabetero gai serioen bat agertzen da. Ikusten da interesa dagoenean jendeak deitu egiten duela.

- Nolako deiak izaten dira?

- Normalean deiak bi eratakoak izaten dira: ba-

tzuk salaketa konkretuak egiten eta beste batzuk mendia eta ingurugiroko informazioa eskatzen.

Salaketei dagokienez, nota hartu ondoren salaturako toki hori ikustera joaten gara eta bisita horren arabera informabat egiten dugu eta irregularitasunik ikusten ba-



IÑAKI IRIZAR
(Biologoa)

dugu administrazioa jostzen dugu. Azken batean bitartekari lana da gurea eta saiatzeko gara gai horren jarraipena egiten. Era berean salaketa egin

"Ingurugiroko gaiei berehalako soluzioak ematea nekeza da baina gutxika-gutxika gauzak lortzen dira"



Salaketa asko jaso dira mendietan aurki daitekeen zaborrari buruz.

duenari prozesu guztiaren informazioa bidaltzen zaio.

- Ze eratako salaketak izaten dira?

- Gehienbat harrobien kalte ekologikoa, mendietan aurkitzen den zaborra, mendiko pistak eta mendietan ibiltzen diren motor eta *todoterrenoak* buruzkoak. Gipuzkoako mendietara mugatzen gara baina tokatu izan da gipuzkoar batek kanpoko gai bati buruz salaketa egitea. Orduan herrialde horretako mendi federazioari bidaltzen diogu jasotako salaketa.

- Soluzioak lortzen al dira?

- Danetik egoten da. Zaborren kasuan esate baterako salaketa asko izan dira eta aurreko urtean Nekazaritza eta Naturgune Departamentuarekin akordio bat lortu genuen talde bat urte guztian mendiak garbitzen aitzeko. Harrobien kasuak, berriz, askoz konplexuagoak izaten dira interes ekonomikoak izaten direlako tartean baina egiten duten kaltearen arabera ahal diren mugak jartzen saiatzeko gara eta Altzon kalezada zahar bat salbatzea lortu da orain gutxi. Oso kasu gutxitan lortzen dira berehalako soluzioak baina gutxika-gutxika lortzen dira gauzak. Zerbitzu bat ematea da gure helburua.

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

SUBIJA
Gazteentzako moda
Irizar, 1 ☎ 76 42 41



Delegatuak hautatzeko epea urte amaierara arte zabalik dagoen arren, enpresa gehienetan hautatu dira.

Hauteskunde sindikalak 94

Sindikatu nagusiak pozik lortutako emaitzekin

lazko irailaren 15etik urte bukaerara bitartean luzatuko dira hauteskunde sindikalak. Hala ere, Euskal Herrian sindikatuen arteko akordio bat tarteko, dagoeneko eginda daude ia enpresa guztietako hauteskundeak. Bergaran esaterako, lantegi txiki batzuetakoak eta Torunsakoak daude oraindik egiteko.

Hauteskunde sindikalak deitzeko eskubidea hauek dute: enpresan ordezkari gehien duen sindikatuak, enpresan %10eko ordezkariak duenak edo langileen gehiengoak erabakitzen duen ordezkariak.

Hauteskundeak deitu

eta hilabeteko epea egiten da alegazioak egiteko. Enpresariak hauteskunde prozesuari ezin dio eragozpenik jarri. Lantegi batek gutxienez 6 langile izan behar ditu delegatu bat izateko; enpresa komitea eduki ahal izateko, berriz, 50 langiletik gora behar dira.

Gaur egun, sindikatuak lanik gehien kontratu eta nominekin izaten dute. Baina, beste lan batzuek ere egiten dituzte, besteak beste, krisi espedienteak konpontzen saiatu, finikitoak egin, ordu estrak kontrolatu eta lan osasunari dagozkion seguritatea, garbitasuna, arriskua, e.a zaindu.

Parte hartze handia

Bergarako sindikatuak oso pozik azaldu dira orain arte izan den parte hartzearekin; 2.575 lagunek eman dute botua eta hauexek izan dira emaitzak: ELAk 83 ordezkari atera ditu, LABek 48, CCOO-k 17, UGT-k 12 eta independenteeak 3. Sindikatuen ustez, krisiak ez du eragin parte hartzean: *"hauteskunde politikoetan %40ko abstentzioa egoten da eta sindikaletan ia ez dago abstentziorik"*.

CCOO-ren iritziz *"enpresak krisian sartzen direnean eta arazoak dituztenean sindikatuen lana gehitu egiten da, langileak sindikatuetera*



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATGIA,
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

jotzen du eta afiliazioa ere gebitu egiten da".

Hala ere, UGTren ustez, "enpresak gainbehera hasten direnean langileak sindikatuetera informazio eske etortzen dira, baina erreibindikaziorik ez du egiten, bada-kizu, bada-ezpada ere".

Honen haritik, sindikatu guztiak bat datoz arazorik gehien hauteskundeetako zerrendak egiterakoan eta enpresa txikietan eta behin-behineko langileekin izaten dela, beldur handia dagoelako. ELAren arabera, "antiautobioa eta antimilitarista asko dago baina ez dago kultura sindikalik eta gogorra da sindikatugintza bultzatzea".

LABek sindikatugintzari buruz duen ikuspegia ez da enpresara mugatzen: "sindikatuak integrala izan behar du, herriko arlo guztietara zabaldu behar du. Emakumeak, gazteak, langabetuak e.a. ere sindikatuen lanaren barruan sartzen dira".

Kooperatibetan ez dago sindikaturik

Bazkideek osatzen dute kooperatiba eta ez dute nagusirik ezta sindikaturik ere eta irabaziak daudenean bazkide guzti-en artean banatzen dira. Oro har, kooperatibek honela funtzionatzen dute: langile guztiak asanblada osatzen dute; asanbladak, botazio bidez, kooperatibako gestio eta gobernuaz arduratuko den kontseilu erretorea aukeratzen du. Honek du, beraz, aginpidea. Kontseilu erretoreaz gain, bere menpean dauden batzorde soziala eta zuzendaritza ere badaude.

► **Emaitzak Bergarako lantegi haundienetan**

LANTEGIA	LANGILEAK	ELA	LAB	CCOO	UGT	GUZTIRA
ALTOS HORNOS	340	8	4	1	-	13
MAYC	399	5	3	4	1	13
ALGODONERA	161	5	1	2	1	9
TAVESA	146	7	1	1	-	9
NARVAIZA	130	5	2	2	-	9
ELAY	119	5	2	1	1	9
UDALA	91	2	4	-	-	6
ARANZADI IKASTOLA	71	2	3	-	-	5
LACOR	69	2	-	-	2	4
T.T.T.	67	2	-	2	1	5
IRAUNDI	64	5	-	-	-	5
MARIAREN LAGUNDIA	47	1	-	-	-	3
METAGRA	57	1	4	-	-	5
UNED	33	1	2	-	-	3
KATEA BERGARA	45	-	3	-	-	3

DELEGATU BAKARRA	57 enpresa	28	18	4	18	68
DENETARA	-	83	48	17	12	160
%	-	50.9	29.4	10.4	7.3	%100


OHARRA: ELA eta LABek emandako datuak dira. Mariaren Lagundian, STEE-EILASEk 2 delegatu ditu.

Biak Kontseilu Erretoreari eta proposamenak ematez arduratzen dira. Zuzendaritza, gainera, lan teknikoaz eta gestioaz.



Sindikatuak lanik gehien krisi garaian izaten dute eta afiliazioak ere gora egiten du. ARTXIBOA.

Sindikatuena balorazioak



"Lehen sindikatu bezala finkatu egin gara; lehengo emaitzei eutsi, eta lurralde eta sail guztietan igo egin bait gara. Deba garaian 209 delegatu ditugu, Bergara eta Antzuolan 83. CCOO-k, LABek eta UGT-k urrutetik jarraitzen digute.

Zerbitzu aldetik nahikoa aurreratu dugu eta barne antolaketa ere osatzen goaz, horiek dira, gure ustez, igoeraren arrazoiak.

Lehen indarra ez ezik, ELA bai enpresari-entzat, bai erakundeentzat, derrigorrezko erreferentzia bihurtu da".

"Lehen indarra ez ezik, derrigorrezko erreferentzia bihurtu gara"




"Helburuak lortu eta gainditu egin ditugu; bigarren indarra gara bai EAEn (%15), bai Deba Garaian (%27). Lehen Deba Garaian 3. sindikatu ginen 104 delegatutuekin; orain, berriz, 126-rekin CCOOi, hau da, hirugarren indarrari, 60 ordezkariaren alde atera-zen diogu.

Bergarari dagokionez, LAB komiteetan ondo finkatu da eta igo egin da delegatuetan eta afiliazioetan.

Ohialgintzan (Algodonera eta Tavesa) sartzea lortu dugu eta udalean beste bi ordezkari atera ditugu".

"Helburuak lortu eta gainditu ditugu bigarren indar bihurtu gara eta"




"Gure balorazioa positiboa da, orain arteko emaitzak aurreko hauteskundeetako antzekoak izan baitira: metal eta ohialgintzan lehengo antzera geratu gara; enpresa txikietan, ordea, portzentaia pixka bat jeitsi egin da, enpresari-ek CCOOekiko duten jarraitasunik.

Hemengo lantegi txikietako enpresariak ELA-ri erreztasunak jartzen dizkio bere aldeko joera duelako, eta guk sartze-ko arazoak ditugu.

Baina, oro har, sindikatuen lana enpresa handien arabera baloratzen denez, egiten dugun balorazioa positiboa da".

"Hemengo enpresari txikiak ELA-ri erraztasunak jartzen dizkio"



"Orain arteko emaitzak onak dira, gure helburuekin bat dato; 1990eko hauteskundeetako emaitzen parean gabilta. Lantegi txikietan eta eraikuntzan igo egin gara.

Dena den, gure arazoa da gure afiliaturik gehienak jubilatuta egin direla eta etorkinak, berriz, euren herrietara joaten hasi direla.

Gainera, estatuan "pastela" 2 sindikatuen artean banatu behar dugu baina hemen 4 sindikatu gaude eta jakina, bertako jendea sindikatu abertzaleen aldekoa da".

"Gure arazoa da gure afiliaturik gehienak jubilatuta egin direla"



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Ikasketak direla eta.....

Merezi al du ikasteak?

BATZUTAN klasean agobiatuta gaudenean geure buruari galdetzen diogu, zertarako balio duen asignatura honek?

Adibidez, LH-II 3. maila mekanikoa ikasten ari den pertsona batek zertarako nahi du fisika, ingeles edo matek? Maisu batzuk pentsatzen dute fisika eta mate mekanikarekin harremanak dituztela baina guk ez dugu hain garbi ikusten.

Egia da bizitza oso latza eta gogorra dela eta gainera lana aurkitzea orain dagoen bezala oso zaila dela. Horregatik da eskola hain luzea eta bukaezina.


Klaseko ordu guztietatik ia erdiek ezertarako

ez dute balio bizitzarako. Askotan jendeak asko ikasten du eta azkenean lanera edo parora joan beharra dauka, ondorioa: ikasketak ez dute ezertarako balio!!

Guk pentsatzen dugu Mekanikako edo beste ikasketak egin nahi baditugu gai horrekin lotuta dauden asignaturak ikasi behar ditugula. Adibidez, Mekaniko arloan beharrezko diren asignaturak: Tailerra (praktikak) batez ere, Teknologia mekanikoa, Kalitate kontrola eta Kontrol numerikoa izango lirateke.


Amaitzeko gustatuko litzaiguke oraingo egoera hau aldatzea.

Ze iritzi daukazu.....HACHISari buruz?




Raul Esteban
17 urte

"Ez nago ez kostoaren alde ez kostoaren kontra, beno gehiago alde. Gaur egunean jendeak erretzen du eta legalizatu egin behar dela uste dut"



Maritere Arozena
26 urte

"Nik ez dut sekula probatu, baina ikaskide batzurekin berbetan komentatu nien ea usaina eta gustua berdinak ziren. Baietz erantzun zidaten. Ez dut probatzeko tentaziorik!"



Amaia Goenaga
33 urte

"Zedozer doministikoa. Ez daukat ezer horren aurka, baina nik erre izan dudanean logurea etorri zait"



Jose Ramon Diaz
18 urte

"Hachis-a ia leku guztietan ikusten da, erosi nahi duenak eros dezake baina, bakoitzak jakin behar du non sartzen den. Legalizatu egin beharko litzateke"

9 galdera motz

Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoan eta Huajoloteetan bibolina jotzen du. Bere irrifar alaia ezaguna da herrian.



Leire Ibarzabal
Ikaslea

- 1 Noiz hasi zinen bibolina jotzen?**
10 urte nituenean, orain dela 8 urte.
- 2 Zenbat ordu jotzen duzu egunero?**
Ordu erdi, 5 ordu sartu beharko nituzkeen arren.
- 3 Zergatik bibolina?**
Entzumen ona neukala esan zidatelako.
- 4 Zenbat disko grabatu dituzu Huajoloteekin?**
Bi, eta beste disko txiki bat aldizkari batentzat.
- 5 Nola topatu zintuzten Huajoloteetakoak?**
Orain dela 3 urte Pol-Polera etorri zirenean.
- 6 Zer iruditzen zaizu jotzen duzun musika?**
Dibertigarria da, entzuteko polita.
- 7 Bergarako taldeek badute esperientziarik?**
Zergatik ez? Lana eta irudimena behar dira...
- 7 Aurrera begira zeintzuk dira zure asmoak?**
Huajoloteekin jarraitzea. Ondo ordaintzen didate.
- 9 Zergatik ez daukagu talde ospetsurik?**
Ez dut ezer argirik ikusten, galdera oso zaila da.

Txisteak



Oscar Santamaria
17 urte

DESPISTATUA

- Ama, ama eskolan despistatua naizela esaten didate.
- Isilik mutiko eta joan zaitez zure etxera, ni ez nauzu zure ama eta!

A ZE MARKA!!

Baziren frantses bat, italiar bat eta euskaldun bat eta apostu bat egin zuten. Apostua zen aizkorarekin ehun zuhaitz moztea, hartza hiltzea eta emaztearekin maitasuna egitea. Azkarren egiten zuenak irabaziko zuen. Lehenengo frantsesa joan zen. Ehun zuhaitzak moztu zituen, hartza hil zuen eta emaztearekin maitasuna egin zuen, guztia 8 ordutan. Gero italiarra joan zen eta 6 ordutan egin zuen. Azkenik euskalduna joan zen eta odolez beteta itzuli zen, esanaz: orain ze emazte hil behar da?

Jolasean.....

Hizki Zopa

Ea asmatzen dituzun Bergarako 9 kirolariren abizenak:

- 2 futbolari
- 2 pelotari
- 3 autogidari
- Moto gidari bat
- Txirrindulari bat

R	O	D	R	I	G	U	E	Z	A
A	B	T	U	G	F	V	T	G	S
R	Q	V	B	A	L	M	X	A	R
A	A	A	I	R	I	Z	A	R	J
N	E	G	D	T	W	C	N	I	G
Z	Y	A	E	U	L	X	I	T	O
A	T	E	L	A	B	A	Z	A	Z
B	O	C	U	R	P	N	O	N	B
A	G	E	C	D	E	T	I	O	H
L	I	C	E	R	I	J	B	K	S


San Jose eguna ospatzeko ohiturarik bai?



Aintzane Marcó

69 urte, etxekoandrea

Zedozer egiten dugu bai. Familiakoak biltzen gara eta bildotsa bazkaltzen dugu. Erljio aldetik ospatzeko ohitura daukagu eta mezatara ere joaten gara.



David Barquero

18 urte, langilea

Ez. Lehen txikitari bai, ohitura geneukan aitari opari bat egiteko baina orain ez dugu ezer egiten.



Lucia Rocha

16 urte, ikaslea

Normalean oparitxo bat egiten diogu aitari eta gero ba, bazkaria izaten dugu etxean.



Santi Orbeagozo

40 urte, langilea

Ez, igual zedozer aipatzen dugu baina ospatu ez. Bi seme-alaba dauzkagu eta batzutan ikastolan egindako zedozer ekartzen dute, besterik ez.



Marivi Maiztegi

33 urte, etxekoandrea

Ez. Bueno, umek ekartzen dute zerbait ikastolatik, erregalotxoren bat... Gero, pastelak jan eta erregaloak eman aitatxori.



Iñaki Akizu

48 urte, langilea

Ez dugu inoiz zelebratzeko ohiturarik izan. Aurten domekan tokatzen denez beharbada, bazkari hobe izango da. Eta igual detailetxo bat jausten da...



zumelaga
JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

**LONBIDE
OINETAKOAK**

Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**





Bakearen bidetik

Martxoaren 8tik 12ra Bilboko Carlton hotelean gertatuta-koarekin elkarrizketa politikoak bakea lortzeko balio duela erakutsi da, eta horretarako borondatea badagoela ere bai. Nahiz eta eduki politikorik jasotzen ez duen agiri bateratu batekin amaitu, Elkarriren Bake Konferentzia positibotzat jo behar dugula uste dut. Eduki politikorik ez, baina agiri bateratua bai. Beraz, aurrerapausua.

Konferentziaren hasieran inork ez zuen pentsatzen horrelako agiri batez amaituko zenik, baina horrela izan da eta neurri horretan baloratu behar da. Ezin dugu esan konferentziak eman duenarekin dena eginda dagoela ezta bakea lortuko dugula, ez epe laburrean ezta epe luzeagoan ere, horretarako elkarrizketa askoz sakonagoa behar baita eta bost egun baino gehiago, noski. Momentu honetan hitz egiteko helburuarekin mahai batean eseritzeak, eseri diren moduan, alderdi desberdinetako ordezkariak, bakerako bidean jartzen gaitu. Gauza asko eta asko mahai gainean gelditu dira, baina aurrera begiratuta interesantea zera da: helburu berberarekin topaketa berriak antolatzea ea adostasun gehiago lortzen den.

Elkarrik antolatutako konferentzian hutsuneak ere izan dira, PP eta PSE-EE alderdienak, nahiz eta gonbidatuak izan. Gaur egungo momentu politikoa ikusita ulertzen dut gonbidapen horri uko egitea, baina ez joatea eta konferentziak iraun duen bitartean izan duten jarrera ez zait egokia iruditzen. Egunero egunero beraien kritikak azaldu dituzte han eta hemen konferentzian eserita zeudenen protagonismoa kentzeko.

Ane Miren LIZARRALDE



Hilabete zoroak

GAL kasuaren inguruan, ustelkeria dela eta edo Roldanen atxilotetari buruz ezagutu diren gorabehera berriek berriro erakutsi dute zenbateraino den "demokratikoa" Espainiako Gobernuak, kakotxen artean noski.

Ezuste asko izan dira eta preso sozial batek eman du azkenaldian ugaritu diren eliteko presoek Alkalako kartzelan dituzten baldintza eta tratua berri. Nahiko lituzkete euskal presoek. Kartzelako zuzendari omen ziruditen ordenagailu eta guzti. Madrileko kongresuak, aldiz, atzera bota du preso politikoen eskubideen aldeko eta dispersioaren aurkako proposamena. Autodeterminazio eskubidearen alde da, Elkarrik egindako inkestaren arabera, Hego Euskal Herriko biztanleen ehuneko 57a; aurka berriz ehuneko 11 besterik ez. Euskaldun guztiok indartsu exijitu behar dugun eskubidea da. Euskal Herria ez da Espainia ezta Frantzia ere, euskaldun batzuk askatasunaren alde asko borrokatzen ez badute ere.

Euskadiko alderdi españolista nagusiek ez dute parte hartu Bilboko bileran. Batek ezin du ikusi gainera ETBko eguraldiaren mapan zazpi probintziak izatea eta hiru izan behar direla eskatu du. Hau estatutu ahul bat onartu izanaren ondorioa da. Gainera bi alderdi horietako liderrak haserre eta arduratuta dira, orain arte, praktikan, euren tesi errejonalistekin bat egin duen PNVren jarrera aldaketarekin. Espero deigun helburu elektoralak dituen jarrera aldaketa ez dadila izan eta hainbat urtetan hainbeste sufritu duen herri honek behingoz askatasuna lor dezala. Bada ordua eta. KORRIKA bada hobe.

Jon ALTUNA



DANTZA IKASTAROA

Fandangoa eta Arin-Arina

IRAKASLEA: Eduardo Muruamendiaraz

NOIZ: Asteartetan, martxoaren 28tik maiatzaren 9ra arte

ORDUTEGIA: Iluntzeko 8etatik gaueko 10etara

PREZIOA: - JARDUNeko bazkideak: 3.000 pzta.

- Bazkide ez direnak: 3.500 pzta.

IZEN-EMATEA: JARDUNen edo 76 08 19 telefonora deituz

APUNTATZEKO AZKEN EGUNA: Martxoak 24



Ikastetxea gurasoei zabalduz

Hurrengo ikasturterako matrikula epea zabalik dagoela eta, **San Martin de Agirre ikastetxeak** gurasoek eskola bisitatzeko ihardunaldia antolatu zuen aurreko larunbatean. Guraso dexente hurbildu ziren bertara eta guztiek inpresio ona jaso zuten bertako instalakuntzekin. San Martin de Agirreko arduradunek oso positibotzat jo zuten ihardunaldia. Gurasoak, berriz, beren seme-alaben ikastokian izan genituen egun batez eta liburutegia, laborategia, gelak eta gainontzeko instalakuntzak ezagutu ahal izan zituzten.



Joan zen zapatuan atek ireki zizkien San Martin ikastetxeak, zentruan ikasten ari direnen gurasoei.



Marcial Egaña eta Barbara Gantxegik 60 urte elkarrekin ezkontuta.

60 urte elkarrekin

Marcial Egaña eta Barbara Gantxegi senar-emazteak otsailaren 21ean ospatu zuten ezkondu zireneko 60. urtemuga. Hain zuzen ere, 1935eko otsailaren 21ean ezkondu ziren Bergarako Santa Marina elizan eta hori ospatzeko bazkari ederra izan zuten orain dela hilabete inguru Antxoni jatetxean beren familiartekoekin. Primeran igaro zuten eguna eta argazkia ere atara zuten, okasioak merezi zuten eta. Hara hor, bada, Marcial eta Barbara zein baino zein dotoreago. Zorionak eta urte askotarako!!

LARRAÑAGA eta ZUBIA
Banatzailleak
 Errioxako ardoa, olioak, esnea, lejiak...
 Martokua, 32 ☎ 76 45 94

Aldoka Maldoka
TABERNA
 Kruz Gallastegi BERGARA

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
 Kafea da gure berezitasuna
 Zubieta, 26 BERGARA

IDOLAZen zuzendaritza berria

Idolaz Antzuolako euskara elkarteak juntako kargudunak izendatu zituen astelehenean, pasa den martxoaren 3an batzar orokorra egin ondoren. **Jone Legorburu** izango da elkarteko **presidente berria** (Gozton Iparragirre ordezkatzuz), **Jabier Larrea** presidenteorde izendatu zuten, **Maria Angeles Aristi** diruzain eta **Mari Karmen Iturbe** izango idazkari. **Bokalak**, berriz, **Edurne Begiristain**, **Patxi Kortabarria**, **Josue Madariaga** eta **Ander Lezeta** izango dira. Batzar orokorrean 35 lagun bildu ziren eta bertan iaz egindakoen berri eta aurtengorako asmoak eta espero diren gastu eta sarreak aztertu ziren. Era berean, Idolaz lanean dabilizan beste bi talde-




Joan zen astelehenean osatu zen Idolaz Zuzendaritza Batzorde berria.

ak azpimarratu ziren, batetik ekingiz antolaketaz arduratzen dena eta bestea Antzuolako euskara aztergai duena. Bigarren hau Antzuolako euskeran berba egiterakoan egiten diren akatsak aztertzen ari da batik bat; eta 3. talde bat

ere aipatu zen: Antzuolako hika zuzen erabiltzeko ahaleginetan dabilena hain zuzen ere. Azkenik, Idolaz parte hartu nahi duten guztiei atek irekita dituztela gogoratu zitzaizkien. Bestalde, aurtengo **bertso paperen lehiaketa** konbokatuko

du Idolazek. Bertan Antzuolan jaio eta bizi direnek parte har dezakete eta adinen arabera 4 talde bereiztuko dira (10 urtera arte, 11-14 urte, 15-17 eta 18 urtetik gorakoak). Lanak apirilaren 24a baino lehen jasoko dira Udaleko Euskara Zerbitzuan edo liburutegian. Bukatzeko, gogoratu gaur 8etan Goenkale telebista hainbat aktoreekin mahai-ingurua izango dela Antzuolako zine aretoan.



Zertan dihardute ba?



Beñardo Kortabarria

32 urteko antzuolarra Arrasate Press aldizkariko zuzendaria izango da aurrerantzean. Beñardo Informazio Zientzietan lizentziatua da eta aurretik, 1990etik 1993ra bitartean, kazetari lanak bete zituen Arrasate Pressen. Bere hitzetan, "nere asmoa aldizkaria zertxobait aldatzea litzateke baina datorren urtean hobeto erantzungo nizuke galdera horri". Beñardo Kortabarria Berrigarako ohizko kolaboratzaileetako bat da. Zortetik onena opa nahi diogu bere eginkizun berri horretan.



- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

AKORT

San Lorentzo, 7 behea.
☎ 76 50 39



Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK


BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

Eduardo Muruamendaraz

Dantzan urteak eraman arren, Edu Muruari (30 urte) ez zaio plazaz-plaza jarraitzeko ilusiorik falta. Aurrekuan zein sueltuan Euskadiko txapelduna, orain, dakiena erakutsiko du JARDUNek antolatutako dantza ikastaroan.


- Dantzako maisua ala ikaslea?
- Oraindik ikaslea, gerora maisua.
- Dantzan egiteko ikasi ala jaio?
- Ikasi.
- Zelan hasi zinen dantzan?
- Ikastolan, Moisesekin.
- Zer botatzen duzu faltan?
- Kultura mailan dantzari garrantzi gehiago ez ematea.
- Noiz arte dantzan?
- 199? arte.
- Badago harrobirik?
- Bai, gero eta gehiago.
- Bota dizuten lore bat?
- Zure edadearekin eta oraindik horrela dantzatzen?
- Txapelketetan epaileak lagunak izan behar dira?
- Ez.
- Non egin duzu dantzan gustoren?
- Konstituzio Plazan.
- Eta non gustatuko litzaizuke



"Kultura mailan dantzari garrantzi gehiago ez ematea botatzen dut faltan. Oraindik ikaslea banaiz, gerora dantzako maisu izan nahi dut. Nere bertute bat aipatzekotan konstantzia esango nuke eta defektua buru-gogorra naizela"

dantzan egitea?

- Dantzari garrantzia ematen dioten edozein lekutan.
- Fred Astaire ala Travolta?
- Fred Astaire.
- Dietarik egiten al duzu?
- Ez.
- Zenbat ordu lo?
- Zazpi.
- Siestarik egiten duzu?
- Ezta.
- Zerekin egiten duzu amets?
- Loteria tokatzearekin.
- Bidaia bat nora egingo zenuke?
- Karibera, eguzkitara.
- Ilargira bidaia egingo zenuke?
- Ez, ez naiz abenturazalea.
- Zer ez zenuke irla deserto batetara eramango?
- Erropak.
- Emakumeengan zertan fijatzen zara lehenengo?
- Begietan.
- Zure gorputzeko zein atal gustatzen zaizu gehien?
- Eskuak.
- Bertute eta defektu bat?
- Konstantzia. Eta defektua buru-gogorra izatea.
- Nola lortu daiteke pakea?
- Gezurrak eta bakoitzaren interesak alde batera utziz.
- Infantaren ezkontzaren gora-beherak jarraitu dituzu?
- Ez naiz horrelako txismez arduratzen.



POL-POL

TABERNA

☎ 76 07 78

DEPORTIVO

TABERNA

☎ 76 01 51

ARREGUI, E.M.



AROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

ETXEBIZITZA

Pisua eta lonja salgai Osintxu auzoan.
☎ (945) 25 19 64.

Pisua salgai Osintxun. 3 milioi. ☎ 76 49 12.

Pisua salgai San Migel kalean. ☎ 76 02 13.

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 16 68.

Garajea salgai Boni Laskurainen. ☎ 76 15 64.

Baserría salgai Elosun. ☎ 76 57 24.

Garajea salgai Antzuolan (Ibarrondon). ☎ 76 63 65.

Pisua alokairuan Elgetan. ☎ 76 81 42 (Mertxe).

Bi pisu alokatzen dira San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Pisu bat alokatzen da Martiategin. ☎ 76 46 15.

Pisua salgai Osintxun. ☎ 76 55 98/17 27 (gauzez).

Etxe bat erosiko nuke Bergaran. ☎ 79 78 65.

Pisua salgai Artzamendi 17an. ☎ 76 10 55.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Garajea saltzen da Zurra-dero 2an. ☎ 76 12 42.

DENETARIK

Musika **bateria** salgai. Ia berria. ☎ 76 08 58.

Soinu beltza salgai. ☎ 76 59 95.

Braco aleman txakurrak salgai. ☎ 76 10 79.

Strong bateria salgai. 20.000 pta. ☎ 76 32 39.

Trialeko Cota 349 motorra salgai. ☎ 76 18 96.

Botoidun **akordeoia** erosiko nuke. ☎ 76 28 86.

Urrezko pultsera bat galdu dut **Miren** izenarekin. ☎ 76 40 50.

Ahoko aparatu bat galdu duenak Udaltzainetan jasoz dezake.

Motorrak eramateko **karro** bat erosiko nuke. ☎ 78 18 58 (Jose Mari).

Ford Fiesta SS-AD kotxea salgai. ☎ 76 46 80 (gauzez).

Reflex Minolta argazki kamara (7000 AS) salgai. 35-70 eta 70-120 objektiboak eta flasharekin. ☎ 76 04 15.

Sega Megadrive kotsola eta 2 joku salgai. 15.000 pezeta. ☎ 76 39 77.

Erabili gabeko **kuna** berri bat salgai. Osorik. ☎ 76 08 51.

Geace's paseorako bizikleta egoera onean salgai (ia berria). 9.000 pezeta. ☎ 76 16 51.

LANA

Ingeles klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxebizitzak garbitzen ditut. ☎ 76 59 47 (Loli).

Ingeles Filologian lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 26 63.

BBB eta LH klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Korreosetarako oposizioak gertatzen dira. ☎ 76 08 53 (10.00-15.00).

Matematika eta Zientziatako klaseak. ☎ 76 06 50.

BBB, UBI eta Lanbide Heziketako klaseak. Baita etxez etxe. ☎ 76 18 00.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren, gauzez).

Zuzendaritza Idazkaritza ikasi ondoren lan egingo nuke. ☎ 76 11 32 (Marta).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Matematika finantziario klaseak. ☎ 76 05 43.

Haurrak zaindu edota etxe-ko lanak egingo nituzke. ☎ 76 46 14 (Carmen).

Aleman klaseak ematen ditut. ☎ 76 00 81 (Idoia).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 87.

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta ☎ 76 11 50


MARIA ISABEL BENITO doktorea

Medikuntza eta Zirugia lizentziaduna

MEDIKUNTZA ESTETIKOA:

- Loditasun orokorra edo lokalizatua
 - Tinkotasun eza
 - Zelulitisa
- Azalaren zahardadea
 - Zimurrak
 - Etab.

Bidekurutzeta, 46 behea-ezkerra ☎ 76 52 62 (ordua eskatu)



"Garai batean 9 errota zeuden eta gaur egun bakarra dago, Alzarte edota Errotaberrikoa"

"Badago arkitektura mailan balore handia duen baserri bat, Besagastikoa. Pena bat litzateke hura galtzea"

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ, HISTORIALARIA

"Uste baino azkarrago hasi dugu galtzen gure Kultura Ondarea"


Iñigo Ramírez de Okariz antzuolarrak Antzuolako baserriak eta errota izenburuko liburua kaleratu berri du. Bertan, galduta eta galtze-ar dagoen Kultura Ondarearen memoria historikoa jaso nahi izan du.

- Zein izan da lan honen helburua?

- Orain 10 bat urte hasi nintzen datu bilketarekin. Uste baino azkarrago hasi da gure Ondare Kulturala galtzen eta batez ere gure baserriak, nolabait garai bateko filosofia dena. Filosofia horren barruan hizkuntza ere hor dago. Baserriarekin hitzegitean konturatzen zara zenbat galdugun. Askotan esaten den bezala, egungo euskararen unibertsitatea baserria da. Beste arazo bat ekolojiko da. Baserriak desagertu ahala ingurugiroaren degradazioa dator, turismo ekolojiko bultzatzen hasi garenean gainera. Gure Ondarearen galera ikusita, horren memoria historikoa berreskuratu nahi izan dut.

- Zeintzuk dira Ondarea galtzearen arrazoiak?

- Lehen errota irina, garia eta artoa jaso eta ar-



Harrera ona izan du Antzuolan Ramírez de Okarizen azken lanak.

gindarra emateko erabiltzen ziren eta industrializazioarekin irin-fabrikak eta Iberduero heldu ziren. Antzuolan garai batetan 9 errota zeuden eta gaur egun bakarra dago, Alzarte edota Errotaberrikoa. 70. hamarkadan gehienak desagertu ziren. Baserriek dagokienez, bereizketa bat egin dut: zutik daudenak (109 baserri) eta desagertutakoak (dozena erdi bat). Gero eta baserri gutxiago dira eta baserriaren gehienak 65 urtetik gora-

"Posible da baserriak bizitzea baina lan gogorra da, azken batean industrializazioak baldintza egokiagoak eskeintzen baititu: soldata hilabetero, oporrak..."

koak dira, seme-alabak ez dira baserrira lotzen gaur.

- Baserria krisialditik ateratzeko biderik badago?

- Bideak jorratzen ari dira: nekazal turismoa, Antzuolako Lapatza baserrian martxan jarri den nekazaritza biologikoaren esperientzia... Posible da hortik bizitzea baina lan gogorra da. Industrializazioak baldintza egokiagoak eskeintzen ditu: hilabeteroko soldata, oporrak... Merkatura begira dauden baserriek iraungo dute.

- Bitxikeririk aurkitu duzu lana egiterakoan?

- Badago arkitektura mailan balore handia duen baserri bat, Besagastikoa (XVI. mendekoa): bere fatxada osoa oholez estalita dago (Gipuzkoan Ezkio-Itsason dago bestea). Diputazioak Ezkio-Itsasokoa erosi du eta penagarria litzateke Antzuolako alde batera uztea.

- Antzuolak baserri jatorria izango du...

- Bai, Antzuola baserri girotik sortutako herria da eta liburuarekin jendea berehala identifikatu da, bere nortasunaren zati bat berreskuratzen baitu azken batean.



Kopa txapelketari hasiera emango zaio astebukaeran

Bihar hasiko da Labegaraietako futbito txapelketaren kopa txapelketa. Guztira 45 taldek hartuko dute parte eta lehenengo kanporaketa bi partidutara jokatu den bitartean, hurrengoak partidu bakar batera izango dira.

Kanporaketak jokatu ondoren hiru talde geldituko dira bakarrik eta hauek euren artean jokatu dute txapelduna zein izango den erabakitzeko. Erabiliko den sistema Udako futbol torneoek erabiltzen dutena izango da, partidua 25 minututako hiru zatitan banatuko da eta talde guztiek egun berean elkarren kontra jokatu dute. Esan beharra dago talde kopurua bakoitia denez Kriterium lehen kanporaketatik kanpo gelditu dela.

Ordaindu edo kalera!

Bestalde, datorren asteazkenerako Pikapiedras, Soropotroak eta Construcciones Bergara taldeek antolatzaileek eskatutako 5.000 pza.k ez badu-

te ordaintzen txapelketatik kanporatuak izango dira eta datorren urtean ere talde horiekin fitxa duten jokalariek ezin izango dute jokatu.

Liga txapelketaren balantze baikorra egin dute antolatzaileek. Halere, arau berri bat sartu behar izan dute kopa txapelketarako: talde bat lau jokalarirekin aurkeztu eta ez badu bere partidua jokatzen, 1-0 galdu beharrean ez aurkeztua bezala emango zaio.

Ligako play-offak datorren astean

Azkenik, ligako txapelduna erabakiko duten kanporaketak datorren astean jokatu dira. A multzoan 6 lehenengo postuetan sailkatu direnak eta Bildurbarek-Mongatxurra eta Angiozar-Bar Canalejas partiduetan garaile iritetzen diren bi taldeek, zortzi talde gizona, jokatu dute ligako txapelduna erabakitzeko play-offa. Gogoratu dezagun, Iaz Errotagainek irabazi zuela.

A TALDEAK	Punt.
1. Errotagain	14
2. Kabia	12
3. Madura	12
4. Arloteak	9
5. Ufala	8
6. Ozaeta	7
7. Bildurbarek	7
8. Angiozar	7
9. Bar Canalejas	6
10. Mongatxurra	5

B TALDEAK	Punt.
1. Ogizun	14
2. Arkupe	14
3. Usoa	13
4. OH Zerezos	11
5. Pagomendi	11
6. Etxagi	10
7. Revienta	6
8. Os Jardineiros	6
9. Guadalest	2
10. Uve Bikoitza	0

C TALDEAK	Punt.
1. Etxenagusia	14
2. Hartu Zamak	14
3. A Ze Flaxa	14
4. Nahikari Hooll.	9
5. Kriterium	7
6. Eri	5
7. EH Biterrak	5
8. Amozkibar	3
9. Soropotroak	1

D TALDEAK	Punt.
1. Kirolzaleak	14
2. Ezinleike	11
3. La Juve	9
4. Nekrofilikos	8
5. Shaktale	7
6. Ari Ari	7
7. Igandekoak	7
8. Krai	3
9. C. Bergara	-2

E TALDEAK	Punt.
1. Txipiron	12
2. Los Txupeta	11
3. Pata Negra	10
4. Pikapiedras	8
5. Labegaraieta	5
6. Aldoka	5
7. Patxaran Team	1
8. Paok San Juan	0



Tokieder taldeak irabazi zuen iaz kopa txapelketa.

partiduak

LARUNBATA

Barruan

9.00: Igandekoak-Etxenagusia
Mongatxurra
10.00: Etxagi-Mongatxurra
Etxenagusia

IGANDEA

Barruan

9.00: Txipiron-Kabia
Kirolzaleak
10.00: Bar Canalejas-Kirolzaleak
Pikapiedras
11.00: Pikapiedras-Labegaraieta
Bar Canalejas
16.00: Ozaeta-Arloteak
Paok de San Juan
17.00: Paok San Juan-Ogizun
Eri
18.00: Eri-Amozkibar
Ufala
19.00: Ufala-Uve Bikoitza
Os Jardineiros
20.00: Os Jardineiros-Bildurbarek
Uve Bikoitza

Kanpoan

9.00: EH Biterrak-Angiozar
Madura
10.00: Ezinleike-Madura
Shaktale
11.00: Shaktale-Nekrofilikos
Ezinleike
16.00: Pagomendi-Patxaran Team
Revienta
17.00: Hartu Zamak-Revienta
Arkupe
18.00: Errotagain-Arkupe
Hartu Zamak

OHARRA:

Beltzez agertzen diren ekipoek partiduak arbitratu beharko dituzte.

Axen Espainiako Txapelketan

Axen Garitanok, Baqueira Bereten jokatu den txakurrak tiratutako trineoen Espainiako Txapelketan parte hartuko du astebukaera honetan.

Lau t'erdiko pelota txapelketa

Elgetako 4 t'erdiko pelota txapelketan bergarrek ez zuten batere zorte onik izan, 23 urtez azpikoen kategorian Alberdi, Samaniego eta Zabaleta euren partiduak galdu bait zituzten. 23 urtez azpiko kategorian, Iturbe, Gutierrez, Muruamendiaraz, Oruesagasti eta Osa eta, 16 urtez azpikoan, ostera, Martin, Iñigo Zabaleta eta Iker Zabaleta arituko dira.

Pilotagintza tailerra

Martxoaren 27, 28, 29 eta 31n pilota mota ezberdinak egiteko metodoak ikasteko aukera izango da Kultur Etxean 7etatik 9etara. Izen-ematea (2.000 pta.) martxoaren 24a baino lehen Kirol Zerbitzuan egin beharko da.

Moller Gorlan nagusi

Danimarkarra, Gorlan irabazten duen lehen atzerritarra. Xabier Gabilondo bikain

Pasa den igandean


jokatu zen Gorlako XXI. igoeran Claus Moller danimarkarra izan zen garaile afizionatuen proban. Beteranoetan, berriz, Jose Fernandezek irabazi zuen eta Xabier Gabilondo bergarrrak 24. postuan amaitu zuen.

Urtero bezala Gorlako maldetan afizonatu mailako txirrindulari onenak hartu zuten parte. Moller danimarkarrak hartu zuen, gaur egun Banestorekin profesioaletan dabilen Santi Blancoren testigua. Moller-ek erraz irabazi zuen, helmugatik bi kilometrotara zeudenean David Cancela eta Jose Javier Gómez iheslagunak atzean laga ondoren.

Profesioaletan ibilitakoa

Danimarkarra bi hilabetez TVM talde profesionalarekin aritu da eta Uruguaiako itzulian lan ezin hobea egin du. Joan zen urtean Santi Blancok egin zuen denbora 16 segundutan hobetu zuen, baina aurtengo probak iazkoak baino kilometro gutxiago zituen.

Beteranoetan, berriz,



Moller eta Fernández, Gorlako igoerako XXI. edizioko irabazleak.

Jose Fernandezek, berriz ere garaipena lortu zuen, erraztasun osoz irabaziz.

Xabier Gabilondo, 2 minutura

Xabier Gabilondok egindako lana ere ez zen makala izan, irabazlearengandik 2 minutura heldu baitzen. "Astebete lehenago ohean kalenturarekin izorratuta egon nintzen eta botaka eta diarreakin ere bai. Ez nuen pentsatzen errekueratuko nintzenik, baina lasterketan ondo ikusi nuen neurre burua. Egindako den-

bora ere nabiko ona izan zen, baina pena izan da 8 segundugatik (12.ena bera baino 8 segundu lehenago heldu zen) postu hobea ez lortu izana" adierazi digu Gabilondok.

Gorlan izandako txirrindularien maila ezin hobea izan dela esan digu Gabilondok. "Maila oso ona izan zen. Irabazlea profesioaletan ibilitakoa da eta ekipo bakoitzak eskaladorerik onenak edo forma onenean daudentak ekarri ditu Gorlara, bemen irabaztea oso garrantzitsua izaten baita taldeentzat".

MEMESA

ARRASATE 79 42 22 ARETXABALETA**P**
phanton**IRIMO****SFK**

KARTELDEGIA

► **Futbola**

Bergara-Mundarro
Preferente maila.
Igandea, 16.45. Agorrosin.
Bergara-Union Txiki
2. jubenilak.
Larunbata, 17.00. Ipintza.
Bergara-Eibar
2. mailako kadeteak.
Igandea, 19.00. Ipintza.
Bergara-Beti Ona
Lehen mailako infantilak.
Igandea, 11.30. Ipintza.
Bergara-Mondragon
Emakumezkoak.
Larunbata, 15.30. Ipintza.

► **Eskubaloia**

Bergara-San Adrian
Kadete neska.
Larunbata, 16.00.
Bergara-San Adrian
Jubenil neska.
Larunbata, 17.45.
Bergara-Bidebieta
Jubenil mutilak.
Igandea, 12.15.
Guztiak Kiroldegian.

► **Saskibaloia**

Bergara-Aloña
Jubenil neska.
Larunbata, 12.15.
Bergara-Mundaiz
Kadete mutilak.
Larunbata, 12.15.
Blak Kiroldegian.

► **Pelota**

PROFESIONALAK

Ansotegi eta Bazeta /
Arteaga eta Oregi I
Urionaguena eta Tolosa /
Koka eta Errasti I
Badiola I eta Andueza V /
Oregi II eta Errasti II
Larunbata, 16.30.
Udal Pelotalekuan.

PALA TXAPELKETA

Osintxuko frontoian
14.00etatik aurrera.

Aritz Aranguren

Defentsak apurtzen maisu

Aritz Aranguren hasiera batean futbolearen hasi zen jokatzeko, baina 16 urterekin futbola utzi eta eskubaloian murgildu zen. Gaur egun, 21 urterekin, B.K.E.ko eskubaloilaririk garrantzitsuenetarikoa da, duen indarragatik eta golak sartzeko duen erraztasunagatik.

- Noiz hasi zinen eskubaloian jokatzeko eta zergatik aukeratu zenuen kirol hori?

- Lehenengo futbolearen jokatzeko nuen eta gero, institutoan, eskubaloian jokatzeko hasi nintzen. Zergatik aukeratu dudana eskubaloia? Koadrilako lagunak zebiltzan eta horrela hasi nintzen, lagunekin egoteko batez ere.

- Jokatzeko berandu hasi zinen. Espero al zenuen orain daukazun mailara heltzea?

- Ez dakit, iaz mailaz igo genuen eta hiru partidu falta direnean, puntu bakar bat behar dugu mailari eusteko. Euskadi mailako taldeekin jokatzeko dugu eta Hondarribiako taldea izan ezik, beste guztiak antzera samar gabiltza.

- Zerbait gehiago egin dezakezuela uste duzu?

- Bai, talde gaztea dugu eta behetik datozenak ere maila oso ona dute. Taldeak horrela jarraitzen badu eta beheko jokalariek hobek direnez gauza politak egin ditzakegu etorkizunean.

- Ikasi eta lan egiten duzu. Horrek ez al dizu

denborarik kentzen eskubaloian jokatzeko?

- Asteazken zehar hiru aldiz entrenatzen dugu eta nahiko ondo moldatzen naiz.

- Duela gutxira arte eskubaloia bigarren maila batean egon da Bergaran, baina azkenaldian jende asko joaten da zuen partiduak ikustera.

- Joan zen urtean igotzea jokatzeko genuen partidura autobus bat joan zen Bergaratik eta hori garrantzitsua da guretzat. Jende asko etortzen da gure partiduak ikustera eta horrek


gehiago motibatzen gaitu.

- Ezkerreko lateralean jokatzeko duzu, nola definituko zenuke zure jokatzeko era eta zein da zure postuan gehien gustatzen zaizun jokalaria?

- Altura falta zait eta horren faltan, azkar mugitu eta indarrarekin jokatu behar dut. Gehien gustatzen zaidan jokalariek Perunnicic, Jokanovic eta Dusebaiev dira.

- Zure jokatzeko moduagatik ikusleek artean jokalaririk gustokoen zara...

- Ke ba, hor Lijo dago.



Futbolearen jokatzeko hasi zen arren, 16 urterekin eskubaloian ekin zion.

"Altura falta zait eta horren faltan azkar mugitu eta indarrarekin jokatu behar dut"



Ikasle fiñak

O sintxuko Eskola Nazionaleko neskek oin ddala 30 urte. Eskola hau gero desagertu ein zan eta Ikastolia sortu. Erretratuan mutillik ez egotiak gaur harritzen bagaittu be, lehen hola zan, mutillak alde baten eta neskek beste baten. Aittatzekua dan beste gauza bat, edade diferentetako jentia bat batera ikastia izan leike.

Ezkerretik eskumara:

Atzeko illaran: Garbiñe Elortza, Jaione Osoro, Ana M. Olabarria, Pili Zangitu, Karmen Gisasola, Itziar Elortza, Anjelita Agirre, M. Asun (maistria).

Hirugarren illaran: Josune Gantxegi, Zorione Elortza, Inmakulada Gallastegi, Rosa M. Arando, Mirari Agirrezabal, M. Jose De Miguel, Consuelo, Arantxa Larrañaga, Margarita Alberdi, M. Karmen Gantxegi, Agurtzane Zangitu.

Bigarren illaran: Maite Laskurain, Ezozi Elortza, Rosa M. Ostogain, Kristina Barrutia, Pili Etxeberria, Anparo Etxezarreta, M. Jose Urzelai, Karmen Agirre, M. Jose Agirrezabal, Piedad Gallastegi.

Aurrian: Arantxa Alberdi, Fatima Gallastegi, M. Anjeles Arando, Maite Arruti, M. Kontxi Ezenarro, Lurdes Garaiondo, Ikerne Zangitu, M. Luisa Igartua, Enkarna Alberdi.

Felipe Iñarra

Argazkia: M. Jose Urzelai

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

ORTZI
erretegia

Ezkontzak, jaunartzeak, despedidak...
130 lagunentzako jantokia

☎ 76 22 68 ANGIOZAR

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea

☎ 76 23 48



ederfu

BARRENKALE, 23

☎ 76 29 65

BERGARA

ARGALTZEKO...

KILO horiek KENTZEKO


ERREMEDIO baten BILA zabiltza?

BIDERIK ONENA...

NOVALINE

ZURE PISUA ZAINDUKO DUGU

NOVALINE



NOVALINE

NOVALINE

NOVALINE

ZURE OSASUNA ZAINDUKO DUGU

Biologo dietista. Dieta pertsonalizatuak.

HURBIL DIETETIKA. Telesforo Aranzadi, 2 ☎ 76 30 08

HALTZARI

Bolu, 24 behea

BERGARA (Gipuzkoa)

Tfnoa eta Faxa: (943) 76 30 57



Aprobetxa ezazu

FAGOR  en

SUKALDE ALTZARIAK

eskaintza
paregabea


Jantzi ezazu

kolore berriekin

zure

*kalitate*dun

sukaldea



%ko **30** **ko**
deskontuak

- ACQUA • FILA • CELICA •
- KRISTAL • AGATA •

modeloetan